

Eako lagunek deitu zigitenean,
zulo beltzez jositako istorio baten berri eman zigiten.
Unibertsoa bezala,
materia beltzez inguratua zegoen herrian ahoz aho zabaldutako kondaira.
Eta materia hori betetzeko saiakera bakoitza,
mundu oso bat zen.

Hemen zaudetenok, proba ezazue:
Mundo eta Unibertsoren istorioa erantzunik ez duten galderez josita dago.
Galdera horietako bat erantzuten saiatuz gero,
itxaron hiru segundo, bost segundo asko jota:
ondokoari zuen teoria zalantzan jarriko duen teoria ausartago bat okurrituko zaio.

Eta horrela ulertuko dugu zer den infinitua unibertsoan:
infinitua
elkarri kontatzen diogun istorio bat da.
Bakarra dirudien arren,
etengabe berridazten ari den istorioa.

Akaso Juan Manuel bertako gehienok imajinatu nahi genukeen anarkista idealista hori zen,
bere garaiko mundu zurruna aldatu nahi zuena?
Ala guztiz kontrakoa,
bere emazte gazte Ezekiela IEra behartuta ekarri zuen norbait, gizonkeriaren mendean?
Akaso Ezekiela bere senarraren itzalean gatibu zegoen presentzia bat zen,
ala gutiz kontrakoa,
Zarakondegiko ostatu misteriotsuan askatasun eremu bat gidatzen zuen beste libreprintsadore bat?

Nolakoa izan zen Mundo eta Unibertsoren bizialdi laburra?
Zer sentitzen zuten Mundo eta Unibertsok eskolan izena galdetzen zietenean,
eta ezin zutenean Jose Antonio, Miguel, edo Ernesto erantzun, besteek bezala?
Zer pentsatzen zuten gauetan izarrei begira,
Mundok eta Unibertsok,
munduaz eta unibertsoaz?

Istorio honetan egia borobila hauxe da:
XX. mendearen hasieran bi gurasok garairako oso ez ohikoa zen erabakia hartu zuten:
modu zibilean ezkontzea,
eta beren semei Mundo eta Unibertso izenak jartzea,
garaiko elizaren botere eremutik kanpo hartutako erabakiak.

Mundua hitz batean kabitzen da.
Unibertsoa hitz batean kabitzen da.
Baina hitzak ez dira hitz bakarrean kabitzen.
Hitza eskuaren mugimendu txiki baten modukoa da.
Saiatzen zara ahoskatu ahala hitz bat eskuarekin harrapatzen,
baina ihes egiten dizu berehala.
Hitz bakoitzak eskapo egiten digun uhina sortzen du.

Mundo, eta unibertso.
Bi hitz haietan ez ziren haien bizitzak kabitzen.
Izen bilakatutako bi hitz haiek,
sekula imajinatuko ez zuten uhina sortu zuten.

Gaur, hemen,
elkartu gaituen uhina.
Oroitu ezin dena oroitzeko elkartu gara hemen,
meza pagano batean bezala:
istorioak maite ditugunok istorioak entzutea dugulako xede,
nor izan garen, nor garen, eta nor izan gaitezkeen ulertzeko.

Hitz bat mugimendu txiki bat bezalakoa da.
Esku batek airean,
edo uretan,
edo norbaiten azalean egindako fereka batek mendeak iraun ditzake.
Mundo eta unibertsoaren gurasoek ezin zuten sekula imajinatu gu gaur,
hemen egongo ginenik.
Haiek piztutako hitzek, gaur istorioak asmatzera bultzatzen gaituztela.
Mundo eta Unibertso haurrek ezin zuten imajinatu haien bizitza laburrek irudimena hain luzez
piztuko zutenik.
Beraz, ez dezagun hemengo inork itxaropena gal:
gure bizitzetan egiten dugun mugimendu txiki bakoitzak,
erabakimenez gauzatutako keinu bakoitzak,
espero ez dugun uhin bat ekar dezake denboran.

Ez dezagun borrokatzeko pasioa gal.

Eta pasioaz ari garela, Ieko lagunek istorio honekin transmititu diguten pasioa izan da guretzat,
gaurko emanaldi hau sortzeko orduan,
inspirazio iturririk garrantzitsuena.
Istorio bakoitzaren atzean istorio hori kontatzen duenaren istorioa dagoelako.
Jakinmina, kuriositatea, eta justizia poetikoa egiteko beharra.
Hori transmititu ziguten Ieko lagunek.
Eta pasio horrekin berarekin amaitu nahi dugu gaurko emanaldia ere.
Hemen dagoen pertsona bakoitza mundu bat da,
hemengo aulki bakoitza mundu bat da,
eta tartean dagoena unibertsoa,
materia beltza,
erantzun gabe ditugun galdera guztiak.
Gu gaur materia beltz hori artearen bitartez betetzen saiatu gara,
baina horretarako ezinbestekoa izan zaigu pasioa.
Horregatik,
munduen arteko espazioa beteko dugu orain ere pasioz,
mugimenduan,
eta dantzan.
Kanta honek irauten duen bitartean dantza egingo dugu,
eta dantza egitera gonbidatu nahi zaituztegu.
Ez bazaudete eroso, egon eserita lasai.
Begiratu dantza lasai, zauden lekutik.
Ez da ezer gertatzen.
Dena dago ondo.
Baina espazio hutsa betetzen lagundu nahi badiguzu,
gurekin dantza libreria gonbidatzen zaitugu,
erantzunik gabe geratutako galderen espazioa betetzera
DANTZAN!